

3-KANALAK

Gure proposamena bezeroengana iritsi dadin, komunikazioa beharrezkoa da, eta horretarako hainbat aukera ditugu: web orria, posta elektronikoa eta telefonoa. Informazioa bilatzeko eta gustuko etxeak begiratzeko gure web orria da aukerarik hoberena, eta gurekin hitz egiteko ordea, telefonoa edota korreoa. Beraz, gure komunikazio-kanal egokiena posta elektronikoa izango litzateke, edozein momentutan bidali daitekeen mezu bat delako, telefonoarekin ez bezala.

Lehenengo, gure web orria ikustea gomendatzen da aukera ezberdinak begiratzeko eta aukeraketa bat egiteko. Hala ere, zalantzak egotekotan gurekin kontaktuan jarri, gure posta elektronikoarekin edota zuzenean guri deituz. Aukeraketa batzuk egin ondoren, guri deitu eta gelditzeko egun bat jarriko dugu, etxeak erakusteko eta momentuak dituzten zalantzak ahalik eta hoberen erantzuteko.

Hortaz aparte, bezeroengana iristeko, unibertsitateekin kontaktuan jarriko gara haiek gure enpresaren publizitatea egiteko. Ikasle berriei gure enpresaren berri emango diete, eta gazteak gurekin kontaktuan jartzeko erraztasuna emango diete.